

B

BARREN

TOKIKOM



Urrezko domina, Lanbide Heziketako olinpiar jokoetan

Iñaki Hernandez, IMHko ikaslea

DANOBAT
DANUMER
NI-850

INSTRUMENTAL
DANUMER
NI-850



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 740 789/650 586 144



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87





Justo Arriola

Txori (buru) honi kabixatik alde egitteko ordua aillau jakok. Badok sasoia lekua lagatzeko luma berrixei. Ez dok zaila izengo polittago idazten daban moko zorrotzen bat topatzia. Kontuan izanda urtebeteko konpromisua hartu najuala eta laugarrena betetzekotan naguala, uste juat kunplittu juatela. Eta gustora, el!

Gure ateraldixak irakurtzen juenen artian, zahar batzuek esan jaen gure euskera baietz, baiña batzuetan esan nahi genduna ez juela ulertzen. Aldiz, gaztiaguak gure mezua harrapazten juen nahiz eta Elgoibarko hika zihero ez entendidu. Heuk etara ondorixuak.

“Eskerrak bai hiri eta bai BARRENEKUEI, nahi najuana esateko parada eman didazuelako”

Amaittu aurretik, zuriz pinttatu arren zozua beti zozo, zera zabaldu nahi juat: oiñ bi urte lberdrola salatu genduan Sallobente erreka-ertzetan zuhaitzak botatziagaittik Udalaren bedeinkaziuarekin. Mozketa ilegalak zittuanez, inguru horretan ez juen segittu mozten. Enbajadia paretik kentzeko asmoarekin-edo, Eibarko epaitegixak Durangokora bialdu juan kasua. Guk faxez eskatuta, bueltau egiñ juen Eibarrera. Funtzionario baten arabera, testigantza ematera deittuko digue. Ba Borja Llona epailleak arxibatu egiñ juan guri jakinarazi gabe. Neurri biko “juztizia” beti dultzemeneuan boteretsuarekin.

Eskerrak eman nahi dizuedaz, bai hiri bai BARRENEKUEI, nahi najuana esateko parada eman didazuelako. Zozua belia baiño abeslari dotoriagua dala-ta, itxurazko solaskidia izen naizelakuan: errebeldiarako diarrarekin agurtzen nok.



Arkaitz Irureta

Neuk ere BARRENEKIN urtebeterako kontratua siñatu najuan Sugar lagun, eta hirekin bukatuko juatela ematen jok. Segittuko nuke, batez ere gizarte egoera nola dagan ikusitta, zeri buruz idazteko asko zagok eta.

Etorkizunian momenturik polittinak biziko ditugulakoan nagok. Espaiña eta Euskal Herriko putre familixeri ipurdixa bistan geratzen ari zaielako, infrastrukturak, etxebizitzak, bankuak, energia, botere faktiko guztietatik tiratzen iristen haiz politikari ohietara. Nahiko traketsak dittuk, faborien ordaiña agerian geratzen dok-eta; sobre ezkutuak bistarazi biharrik ez dagok ikusteko nun jubilatzen dittuken.

Herritar ugarik entzungorrena egitten segittuko jok, kontrolatutako komunikabidiek esaten dabena siñistuz, beste iturri batzuekin kontrastatu gabe. Aldiz, gero eta gehixago ari dittuk ohartzen eta kriteriua osatzen.

“Koloretako bertsio interesatu bat baiño nahiago juat zuri beltzian informazio plurala”

BARRENEKIN adibidez, guk bezela, edozein herritarrek jaukak bere iritxixa emateko aukeria, eta horregaittik eskerrak ematiaz gain, laguntzeko prest segittuko juat. Koloretako bertsio interesatu bat baiño nahixago juat zuri beltzian informazio plurala.

Plazer bat izan dok, Justo, hirekin atal hau konpartitzia, baiña hau ez dok bukatu, batzutan prisekin, beste batzutan ondo garututako testuekin osatzen segittuko juek astekarixa astero-astero, konpromisoz, guk irakurri ahal izateko.

Beraz, irakulieri eskerrak ematia besterik ez jakuk geratzen, gaizki esanak barkatu, eta ondo esanak kontuan hartu.



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 743 570

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolua estaldura
Lantekua: egur, aluminio, PVC,
Pintura orokorra



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta,
Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi
Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodríguez,
Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga,
Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

50 urte

Ekintza asko egin duzue
Elgoibarko Izarrean
Haur eta heldu danok batera
ta euskera mingainean
Gure alboan egon zerate
berrogeita hamar urtean
Zorionak ta eskerrik asko
Segi horrela lanean!

Beinke bertso eskola ☺

Hautetsi, atxikitu zaituz Udalbiltzara

Udalbiltza Euskal Herriko udal eta udal hautetsien biltzara berrantolatzeke sortu zen talde sustatzaileak antolatuta, martxoaren 2an (larunbat honetan) Udalbiltza berrantolatzeke batzara egingo dugu Donostian, Viktoria Eugenia antzokian (10:30). Dagoeneko 1.227 zinegotzi eta alkate pasa dira berrantolaketarako atxikimendua eman dutenak, 393 udaletakoak. Deialdia Euskal Herriko ia 7.000 hautetsiri egin genien, 1999an Udalbiltzaren sorreran Bilboko Euskaldunan ezarritako bost printzipioekin aldarrikapenarekin bat egiten duen orok parte har dezan.

lazko martxoan hasi zuen talde sustatzaileak lan hau. Esan dugu: 1.200 hautetsi pasa gara jadanik. Gehiago izan nahi dugu. Horregatik, oraindik atxikimendua eman ez dutenei euren udaletxera gonbite hori eginez gutun bat helarazi berri diegu, baita e-postaz ere.

Eskualde honetan ere badira oraindik atxikitu ez diren alkate eta zinegotziak. Udalbiltzako talde sustatzaileak haiek ere nahi ditu nazio erakuntzarako lanean. Haiei dei egiten diegu —eta bereziki Euskal Herria aintzat hartzen dutenei— Udalbiltzari atxikimendua eman diezaioten, eta sostengua emana dugunokin batera larunbatean Donostiako batzarrean izan daitezen.

Euskal Herria nazioa dela aldarrikatu, Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzen lagundu, nazio eraikuntza bultzatu, herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen lagundu eta nazioartean Euskal Herria nazioa dela adierazi; horiek dira Udalbiltzaren sorrerako bost irizpideak. Ezin dugu aukera galdu; guztion artean egin behar dugu Euskal Herria.

Igor Eguren, Iratxe Lopez de Aberasturi eta
Maite Iturre, Udalbiltzako talde
sustatzaileko kideak ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzue:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



Iñigez Karkizao kalea oso iluna da:

“Pedro Mugurutza etorbidean, Usetxe kalearen parean, argiztapena oso eskasa da, eta ingurune hori oso ilun dago aspaldian. Bestalde Iñigez Karkizaoko etheen atzekaldean bonbila bat erreta dago duela ia hilabete batzuk, eta inguru hori ere oso ilun dago. Azkenaldian jende asko bizi da ingurune honetan, eta eskertuko genuke farolak ganoraz jartzea. Eskerrik asko”.



Karakate ingurua plastikoz beteta utzi zuten asteburuan: “Hainbat herritar elurraz gozatzera joan ziren asteburuan Karakate ingurura. Asko izan ziren plastikoak hartu eta irrist eginez jolasean jardun zutenak, eta horietako batzuk plastikoak han bertan utzi zituzten. Gozatzea ondo dago, baina gero plastikoak batu egin behar dira”.

Altzolan ez da Nitro telebista katea ikusten: “Altzolako bizilagunok ez dugu Nitro telebista katea ikusten. Ez dakigu zein den horren arrazoa, baina badirudi antena arazoa dela. Konponbide bat nahi dugu, lehenbailehen”.



Mendaroko guraso talde batek Arno elkartearen txalotu du:

“Mendaroko Ikastola eta Arno Guraso Elkartearen zori ondu nahi ditugu pasa berri dugun inauterietako asteburu zoragarri horregatik. Batetik, ikastolako jaialdia oso dotorea izan zelako eta, bestetik, larunbatean ere oso gustura ibili ginelako haurrak eta gurasoak frontoiko ekitaldian. Segi horrela, oso ondo ari zarete-eta!”.



Elgoibarko Udalak apelazio helegitea aurkeztu du ‘banderen auzian’

Udalak dio ageriko lekuan daudela banderak

Administratzaiozako Auzi Epaitegiaren kontrako apelazio helegitea aurkeztu du Elgoibarko Udalak, banderen auzia dela-eta. Auzitegi horrek emandako epaiak dio Elgoibarko Udalak ez duela banderen legea bete, Espainiako bandera ez duelako udal-tertxeko aurreko aldeko fatxadan jarri. Udalak, aldiz, arrazoitu du Espainiako bandera eta gainerakoak pleno aretoko balkoi batean jarri dituztela, Giza Eskubideen plazara ematen duen balkoian hain zuzen ere, eta plaza hori dela “terrorismoaren biktimak” omentzen dituzten lekua. Horrez gain dio, Giza Eskubideen plaza erdigunean dagoela eta jende asko ibiltzen dela han, eta horrenbestez, leku agerian daudela banderak.

Udalaren apelazio helegite hori gogor salatu du Javi Nuñez PPko zinegotziak. Banderen auzian Udalak erakutsi duen jarrerara “lotsagarria” dela dio Nuñezek, eta banderak udal-tertxeko fatxada nagusian ez jartzea tranpatzat jo du. Hori dela eta, ez du baztertu berriro ere Udalaren kontra egitea. “Udalak ez du legea betetzen. Izan ere, banderak fatxada nagusiko balkoian ez jartzeaz gain, legeak pleno aretoari da-



gokionean esaten duena ere urratzen da hemen. Legeak dio Espainiako banderak ageriko lekuan egon behar duela pleno aretoan, eta hemen, lehentasunezko lekuan dagoen bandera bakarra ikurriña da. Gainerakoak bionbo edo holtz tolesgarri baten atzean daude, pleno aretoko atzeko aldean.

Bizikidetzari buruzko hurrengo foroa martxoaren 7an

Bizikidetzari eta adiskidetzeari buruzko hurrengo foroa datorren egunean egingo dute, martxoaren 7an, eta Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu bilera horretan parte hartzera. Lokarrik antolatutako saioak dira. Hamar-hamabost lagun inguru batzen dira foro bakoitzean, eta dinamizatzaile batek gidatzen ditu saioak. Prozesuan zehar irteten diren ondorio eta proposamenak herritarrekin partekatuko dituzte bukaeran. Interesatuak, 943 743 700 telefonoz eman dezakete izena.

Trinitateetako azokarako izenematea zabalik

Maiatzaren 25ean egingo dute Trinitate jaietako azoka berezia, Udalak eta Debemenek antolatuta. Antolatzaileek Elgoibarko baserriar guztiak gonbidatu dituzte azokan parte hartzera. Interesatuak martxoaren 15erako eman beharko dute izena Debemen elkartearen: 943 744 067.

‘Bateragune auzia’ salatzeko martxa egingo dute bihar Logroñora



Logroñoko kartzelara martxa antolatu dute Arnaldo askatu, politika askatu herri plataformak eta *Bateragune auzian* kartzelatutakoen senideek biharko. *Bateragune auzia* salatu eta atxilotuak libre uzteko eskatuko dute, 12:00etatik aurrera egingo duten ekitaldian. Autobusa 10:00etan irtengo da Elgoibartik, eta 15:00etarako itzuliko dira. Bestalde, Arnaldo Otegi babesa emateko kontzentrazioa egin zuten joan zen zapatuan Kalegoen plazan.

Izena **Liverpooleko ikasleak BARRENEN**

Liverpooleko ikasle talde batek BARREN aldizkariako erredakzioa bisitatu zuen gaur zortzi. Adi-adi entzun zituzten Asier Orbea kazetariak BARREN herri aldizkariaren inguruan eman zizkien azalpenak, eta ondoren, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatearekin batu ziren udaletxean. 15-16 urte bitarteko ikasleak dira, eta Elgoibar Ikastolarekin hitzartutako truke programa baten barruan etorri dira Elgoibarrera. Gero, ikastolako ikasleak joango dira Liverpoolera.



Asteko irudia **Elurra**



Iragarpenak bete egin ziren asteburuan, eta elurra egin zuen. Domeka goizaldean, esaterako, gogotik egin zuen elurra eta zuri esnatu ziren bazterrak. Eta jaieguna izaki, elurraz gozatzeko aprobetxatu zuten askok eta askok, argazkiko haur hauen antzera. Astelehenean ere egin zuen elurra, baina apenas zuritu zuen kalean. Ohi legez, baserri auzoetan sortu zituen elurrak eragozpen handienak. Argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net-en.

Mankomunitateak kamioi bat eman dio dohaintzan Meka Lanbide Eskolari

Erabiltzen ez zuen kamioi bat eman dio Debabarrenako Mankomunitateak Meka Lanbide Eskolari, automozioiko ikasleek praktiketarako erabili dezaten.



Sara Pagola elgoibartarra, Jauriaritzaren ordezkari Mecosurreko herrialdeetan

Jauriaritzaren Gobernu Kontseiluak Sara Pagola Aizpiri elgoibartarra izendatu du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkari Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguairako. Pagolak ondo ezagutzen du Argentina. Izan ere, 1997tik 1999ra Instituto de Calidad Alimentaria Vasco-Argentino erakundea jarri zuen abian Buenos Airesen. ELIKA Fundazioa elikagaien segurtasunaren inguruko institutuaren zuzendaria ere izan da, eta 2011tik 2012ra Cristobal Balenciaga Fundazioko gerentea izan zen.



Hilabetez itxi egingo dute Mendaron Garagartza kalea 13-16 portaleen artean

Garagartza kalea itxi egin dute Mendaron, 13-16 zenbakidun portalen artean. Hornidura sarea birmoldatzeko obrak direla-eta, gutxienez hilabetez itxita izango dute kale hori, Udalak jakinarazi duenez.

MARTXOAK 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



Genero indarkeria salatzen da gizonetako talde bat Elgoibarren. Hain zuzen, herriko 26 gizonetako babesarekin aurkeztu zuten taldea martitzenean, Kultur Etxean. Bost puntuko adierazpen bat kaleratu dute, eta sexismoaren adierazpen guztiak errotik amaitzeko, taldera batzera deitu dituzte Elgoibarko gizonak. Sektore desberdinetako gizonak batu nahi dituzte, eta horretarako, adierazpen hau herri-tarren eskura jarri dute, nahi duenak atxikimendua emateko. Herritarren Arretarako Bulegoan eskuratu daitezke dokumentuak. Adierazpen horretan genero indarkeria gaitzetsi eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean erantzun irmoa emateko eskatu diete gizarteari, erakunde-i eta legediari. Era berean, ohartarazi dute emakumeen kontrako indarkeria kasuen aurrean isilik geratzea azkena dela eta jarrera aktiboa hartu behar dutela aldarrikatu dute.

Sinadurak

JON PEJI URIGUEN
Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatua

ALFREDO ETXEBERRIA
Elgoibarko alkatea

JOSE LUIS IBARZABAL
Bildu Elgoibarko zinegotzia

RICARDO GARATE
EAJko zinegotzia

JON ETXABE
Abokatua

EDUARDO ARRIETA
CD Elgoibarko presidentea

CESAR ARRIOLA
Sanlo Eskubaloiko presidentea

IÑAKI LASKURAIN
Morkaikoko kidea

IÑAKI KONDE
Irakaslea / Euskaltzalea

IMANOL LARRAÑAGA
Euskaltzalea

JOSE LUIS AZPILLAGA
Udal Euskaltegia

ALFONSO EUGI
AEK Euskaltegia

LUIS CERRÓN
Irakaslea / Idazlea

ANDRES ALBERDI
Irakaslea / Idazlea

ANJEL UGARTEBURU
Irakaslea / Idazlea

ANDONI SEGUNDO
Irakaslea

JESUS MARI MAKAZAGA
Unibertsitateko irakaslea

ARTURO ANDRADE
Eskultorea

JOSE MARI LARRAÑAGA
Taupada Antzerki Taldea

IÑAKI AGIRRE
Ongarri Zine Kluba

MIKEL OLAIZOLA
Bertsolaria

TXOMIN MUJIKA
Bandako Zuzendaria

JON SANCHEZ
Mauxitxa Txaranga

JON LIZARRALDE
Haritz Dantzari Taldea

JOSU MUJIKA
Biraka Dantza

ALFONSO GUILLO
Elgoibarko Ikastola

EDU URIBE
Elgoibarko Herri Eskola

IMANOL LOPEZ
Elgoibarko Institutuko zuzendaria

JOXEAN EGAÑA
IMHko zuzendaria

JUAN LUIS ASTIGARRAGA
Dendaria

AITOR ZABALA
Kazetaria

JABI LEON
Kazetaria

PELLO RUBIO
Nekazaria

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Elgoibarko Udaleko bozeramaileen batzordeak Martxoaren 8rako adierazpen instituzionala onartu du. Horren arabera, emakumeek herritartasun mailan erdietsi dituzten lorpenak eztaba daezinak dira, eta mugimendu sufragistari esker, bozkatzeko eta hautetsiak izateko eskubidea lortu zuten. Emakumeen parte hartzea politikan haratago joan behar dela aldarrikatzen du adierazpenak, oraindik ere politika orokorrean eta tokiko politikan gizonak direlako nagusi. Emakumeen hautagai kopuruak gora egin duen arren, Euskadiko alkateen %22 emakumezkoak dira eta %78, berriz, gizonezkoak. Egoera horren aurrean, premiazkoa dela uste dute emakumezkoen presentzia eta eragina areagotzea udal politikako esparru guztietan, baina ez soilik %50era heltzeko; zifretatik harago joan behar dela diote. Elgoibarko Udalak ondorengo bultzatuko du:

- Emakumezkoentzako sareak eta espazio berriak sortzea, tokiko bizitzan duten parte-hartzea eta eragin-gaitasuna indartzeko estrategiak praktikan jartzeko.
- Lan bateratua egitea elkarteekin, emakumezkoek tokiko bizitza politikoan parte hartzea bultzatzeko.

EGITARAUA

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak, Haizea emakume taldeak eta Emakumeen Asanbladak elkarlanean antolatu dute martxoaren 8rako egitaraua. Egitaraua zabaldu prestatu dute, eta ekitaldi horietan parte hartzeko deia egin diete elgoibartarrei.

Gaur bertan hasiko dira Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldiak: Elgoibarko emakume artisten erakusketa inauguratuko dute 19:00etan, eta martxoaren 9ra arte egongo dira ikusgai euren lanak. Hamaika emakume hartuko dute parte, bakoitzak bere alorrean. Nerea Aranburuk labeko esmaltearekin egindako lanak jarriko ditu ikusgai; Juanita Arrieta, Paula Heras, Gemma Monreal, Mari Jose San Millan eta Emilia Nogales margolarien euren koadroak erakutsiko dituzte, Jasone Osoro eta Danele Sarriugarteren idatzizko lanak ere ikusi ahalko dira, Esmeralda Zapparolik eta Marije Astiazuk erretratuak erakutsiko dituzte eta Naroa Graciak bere musika lanak eramango ditu. Asteleheneetik zapatara egongo da zabalik erakusketa, 18:30etik 20:30era.

- **Emakume artisten erakusketa**
Martxoaren 1etik 9ra, Kultur Etxean.
- **'Gorda' antzerkia**
Martxoak 8, 20:30ean, Herriko Antzokian.
- **Erakusketa**
Martxoaren 6tik 10era, Gaztelekuan.
- **Emakumeen murala**
Martxoaren 4tik 8ra, Ludotekan.
- **Haurrentzako tailerrak**
Martxoaren 8an, Ludotekan.
- **Emakumeentzako dantza tailerra**
Martxoaren 9an, 12:00etan, sotoan.
- **Bazkaria**
Martxoaren 9an, Sigma jatetxean. Izenematea, Pitxintxun.
- **Zine-forum, 'Pago justo' pelikularekin.**

- Martxoaren 22an, Kultur Etxean. Loredi Salegik gidatuko du saioa.
- **Irakurketa feminista**
Martxoaren 4tik 8ra, 18:00etan, Kalegoen plazan.
- **Hitzaldia: 'Feminismoa gure baitan'**
Martxoak 5, 19:00, Kultur Etxean. Hizlaria, Kattalin Miner.
- **Manifest-Akzioa**
Martxoaren 9an, 20:00etan, Kalegoen plazatik hasita.
- **Gau festminista**
Martxoaren 9an, Gaztetxean.
- **Pelikula: 'Sans toi ni loi'**
Martxoak 10, Gaztetxean.
- **Kontzentrazioa**
Martxoak 8, 20:00etan, Kalegoen plazan.



HAIZEA ETA EMAKUMEEN ASANBLADA


Emakumeon Nazioarteko Egunaren atarian, orain artean egin dugun moduan eta egiten segituko dugun moduan, gizarte honen eraldaketa feminista aldarrikatu nahi dugu. Gizartean emakumeok daukagun papera azpimarratu ez ezik, balioz josi nahi dugu. Makina bat direlako gure egunerokotasunean zanpatzen zaizkigun aukera eta eskubideak. Emakume izate hutsagatik ukatzen zaigulako geu garena izatea. Emakumeak gara, goxo eta errebelde, gure azal eta haragi. Langileak gara, militanteak gara, amak, alabak eta amonak, izebak, lagunak, etxe garbitzaileak, abokatuak, zainzaileak, itzultzaileak, dendariak, elektrizistak, kazetariak, alkateak, arkitektoak, administariak... gara. Eta gara merienda prestatzen dutenak, komunikatuak prestatzen dituztenak, pankarta atzean edo sofan daudenak, mendian edo ikastaroan, parrandan lagunekin dantzan egiten dutenak, eta kalean kantuan aritzen direnak, maitasuna maite dutenak gara. Garena gara. Eta izaten jarraituko dugu.

Ez dugu onartuko gizarte hau arautzen duen sistema kapitalista patriarkalak otzantzerik. Ez dugu onartuko sistema honek gure egunerokotasunean eragiten dizkigun ukazioen eta erasoaren aurrean isilik geratzerik.

Aipamen berezia egin nahi diegu azken hilabeteotan gure herrian behin eta berriz pairatu behar izan ditugun erasoari. Kalean edo etxean alboan dituzten emakumeak bortxatu, jo edo umilatzeko eskubidea dutela uste duten matxista gehiegi agertu zaizkigu azken aldian, eta nazkatuta gaude.

Emakumeok nahi dugun moduan libre bizitzeko eskubidea daukagu, eta hori aldarrikatzeko martxoaren 8aren harira antolatu ditugun ekintzetan parte hartzeko deia egin nahi diegu Elgoibarko herritarrei. Etxean geratu gabe, irten gaitezen plaza eta ozen esan, gurea dela gure gorputza, gurea dela erabakia. Eta gureak ere badirela, kalea, gaua eta jaia.

Ekintza guztietan parte hartzeko gonbidapenarekin batera, martxoaren 9rako antolatu dugun Mani-fest-akzioan parte hartzeko deialdi berezia egin nahi dugu. Plazan gelditu egotetik pasa gaituzten akziora! Bete ditzagun kaleak aldarrikapenez eta umore onez! Gora emakumeon borroka! Gora borroka feminista!



Korrika18: Eman euskara elkarri!

Andoainen hasiko da Korrika martxoaren 14an eta Elgoibartik martxoaren 20an pasatuko da.



Orain dela bi urteko Korrikako irudia. Leire Agirrebeñak eta Ainhoa Andonegik eraman zuten lekukoa Elgoibarko Izarren izenean.

Martxoaren 14an Andoainen hasiko da Korrika18, bi urtetik behin egiten den euskararen aldeko lasterketa. 11 egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hamazortzigarrenez, martxoaren 24an Baionara heldu arte. 2.550 kilometro baino gehiagoko ibilbidea egingo dute, Euskal Herri osoan euskararen aldeko mezua zabalduz: *Eman euskara elkarri* da aurtengo edizioaren leloa. Hitz horien bidez, euskara “kohesiorako tresna” eta “elkarbizitarako gakoa” dela aldarrikatu nahi dute antolatzaileek, hizkuntzaren erabileraren garrantzia nabarmenduz.

Korrika 18k euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka eta milaka pertsonak omenduko ditu aurtengo edizioan, *Euskalakarri* izateko ahaleginean euskara ikasten eta praktikatzen ari diren guztiak, hain zuzen ere.

Aurtengo berrikuntzen artean, aplikazio bat prestatu dute, Korrika uneoro herri bakoitzera ailegatzeko zenbat kilometro eta zenbat denbora falta den jakiteko.

Elgoibarren, martxoaren 20an

Elgoibarrera, Soraluze aldetik iritsiko da Korrika18 martxoaren 20an, eta herria zeharkatu ostean, Azkoitia egingo du,

Azkaratetik. 20:00ak aldera iritsiko dela aurreikusi dute antolatzaileek, eta Santa Ana kaleko zubian egingo diote harrera. Hauxe izango da Korrika18k Elgoibarren egingo duen ibilbidea: Saturixo, Sigma auzoa, Errepide nagusitik Santa Ana kaleko zubira, Santa Ana kalea, Kalegoen plaza, San Bartolome kalea, Kalebarren plaza, Errosario kalea, Kalegoen plaza, San Bartolome kalea (2. aldiz), San Frantzisko kalea, Maalako parkea, Ermuaranbideko errotonda, Pedro Muguruza, Meliton, San Pedro, Karkizano gaina, San Antolingo errotonda, Azkaratera.

Korrika txikia

Azken urteotan bezala, Korrika Txikia ere antolatu dute 5 eta 12 urte bitarteko umeentzako. Martxoaren 20an egingo dute euskararen aldeko lasterketa txikia, 15:15etatik aurrera. Korrika txikiak ondorengo ibilbidea izango du: Maalako parkean elkartuko dira, eta handik San Frantzisko kalea, Errosario kalea, Kalegoen plaza, Santa Ana igaroko dituzte, eta Eroski aurrean hartuko dute buelta. Antonio Arrillagatik Kalegoen plaza itzuliko dira, eta handik San Bartolome eta Errosario kaleak zeharkatu ostean, Kalegoen plazan amaituko dute korrikaldia.

Erretratu zaharra



1935. urte ingurua

Aste honetako erretratu zaharra Sabin Osorok ekarri du BARRENEKO erredakziora. Ez daki seguru zein urtetako erretratua den, ezta non aterata dagoen ere, baina 36ko Gerra aurrekoa dela badaki. Erretratuan azaltzen diren denak hilda daudela adierazi du. Gogora ditzagun zeintzuk diren:

Goian: Avelino Arrieta, Felix Ansola, Juan Garate, Julian Bilbao, Jose Mari Etxaniz, Luziano Ezenarro, Asensio Bereziartua, Ramon Elorza, Pedro Izagirre, Julio Mugertza. **Erdian:** Primitivo Iriarte, Sebastian Epelde, Jose Gurrutxaga, Rufino Unzueta, Lucio Uriguen, Manuel Alberdi, Felix Garcia, Romualdo Andonegi, Romualdo Leiaristi, Antonio Manterola, Elias Unzueta. **Behean:** Anbroisio Zabaleta, Amantsi Konde, Antonio Jaca, Celestino Onandia (frankistek afusilatua), Basilio Larreategi, Alberto Gurrutxaga.



JARRI EZAZU PUBLIZITATEA

www.elgoiBARREN.net

web atarian

Zure enpresa edo
negozioa klik batean!

*Egin
klik
eta
ikusiko
duzu*

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte, 1963-2013

Elgoibar euskalduntzeko 50 urteko herri-ahalegina



Martxoaren 15ean beteko ditu Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 50 urte. Elgoibar euskaldunagoa izateko lanean jardun du urte hauetan guztietan, eta helburu hori lortzeko prestatu izan ditu proiektu eta egitasmo guztiak. Urteurrena ospatzeko, urte osoko egitaraua prestatu dute, eta martitzenean aurkeztu zuten, musika eskolako auditorioan, sorreratik hona lanean jardun duten izan diren 50 lagunekin. Lehengoak eta oraingoak batu zituzten, denak ez, baina bai asko.

Ainhoa Andonegi

1 1963an sortu zuten Elgoibarko Izarra Felix Etxeberriak, Sabin Osorok eta Jesus Larrañaga zenak beste herritar askoren laguntzarekin. Urtebete lehenago martxan jarri zuten ikastola babesteko eta indartzeko sortu zuten hasieran, eta gerora, beste hamaika proiektu eta egitasmo ere prestatu zituzten: dantza eta txistu-taldeak, gau-eskola, bertsoaritzza eskola, Aubixa aterpetxea, motibazioan eragiteko jarduerak... Eta Udaleko Euskara Batzordea bera ere Elgoibarko Izarraren ekimenez sortu zen.

80ko hamarkadan krisi sakonean sartu zen, baina, eta 1990ean desagertzeaz egon zen. Hala ere, zorionez, bizpahiru bazkidek segitu

egin behar zela erabaki zuten, eta, euskara-elkarteen mugimenduan ekin zion elkarteak bigarren etapari, 1991n. Bigarren etapa honetan ere, hainbat proiektu eta egitasmo jarri dituzte martxan: BARREN aste-karia eta elgoiBARREN.net atari digitala, Atxutxiamaika aisialdi proiektua, Gurean Bai hitzarmenak, Arigera, Toletxe taberna, kultur jarduerak, omenaldi-ekitaldiak... Eta ekintza horiek guztiek helburu bakarra izan dute: Elgoibar herri euskaldunagoa izatea. Baina lan hori ez litzateke posible izango orain dela 50 urte hainbat herritarrek ate hori zabaldu ez balute. Lehen esan bezala, Felix Etxeberria izan zen Elgoibarko Izarraren atea zabaldu zuenatariko bat. Aurkezpen ekitaldian esan zuen be-

zala, “erderiak ez ittotzeko” sortu zuten elkarte 1963an. “Plaza txikian perretxiko bat topatzea, ume bat euskaraz entzutea baino errazagoa zen orduan, eta euskarak Maltzagaraino joateko ere ez zuela balio pentsatzen zuen jendeak”, adierazi zuen Etxeberriak. Egoera hartan zerbait egin nahi zuten hainbat euskaltzalek, “bizi nahi bat edo halako zerbait” sentitzen zutelako. Eta hala ekin zioten, legeak kontra zituztela, formazio handirik gabe eta baliabide gutxiarekin, baina ilusioz eta herritarren babesarekin. Muturrekoren bat edo beste hartu zutela aitortu du, baina argi zeukaten trenak bezala beti aurrera egin behar zutela.

Eta sortzaile haien bidetik etorri dira ondorengo guztiak. Andres Alberdi izan da Elgoibarko Izarrako lehendakarieta-bat, eta berak esan bezala, munduari buelta emateko ilusioz ekin zioten: “Badakigu munduari ez diogula bueltarik eman, baina, poliki-poliki izan bada ere, gure mundutxo eraiki dugu. Beharbada, guk nahi baino gutxiago lortu dugu, ez gara oraindik guk nahi genuen tokira iritsi, baina guk uste genuena baino askoz bide emankorragoa eta luzeagoa egin dugu”.

Programazioa eta helburuak

Ane Odria eta Lore Laspiur Zuzendaritza Batzordeko kideek aurkeztu zuten programazioa eta horren helburuak. Elgoibarko Izarrak urte osorako programazioa prestatu du, eta martxotik urte amaierara bitartean hainbat ekintza burutuko ditu, Elgoibarko Izarrak urte hauetan guztietan egindako lana zabaltzeko. Baina lan hori zabaltzeaz gain, egindakoa goraiatu eta errekonozitu ere egingo dute. Egindako lanaren atzean herritarrak daudelako, bazkideak, eta elkar-teak esker ona azaldu nahi die guztiei.

MARTXOAK 15-16: Merezki zaban! asteburua
 APIRILAK 13: Sagardotegira irteera
 APIRILAK 28: Maskarada ikustera
 EKAINAK 1: Mintza Eguna
 URRIAK 5: Beste 50! jaia
 URRIA: ‘Euskara edo ezkara’ hitzaldi-ziklo berezia
 ABENDUA: 50. urteurrenko liburuaren aurkezpena
 ABENDUAK 27: 50. urteurrenari eskainitako bertso-jaialdi berezia

Ospakizun ekitaldi horiek antolatzen lagundu dieten guztiei eskerrak emanez amaitu zuen aurkezpen ekitaldia Iñaki Konde presidentek: Udalari, batetik, programazioa finantzatzeko diru-laguntza eman duelako eta, bestetik, programazioa burutzeko hamaika erraztasun eta baliabide eskainiko dizkietelako; Danobati, 50. urteurrenko liburu argitaratzeko diru-laguntza eman duelako; antolatu-kuntza-lanetan lagunduko duten bazkide eta herritarrei; eta bereziki eskertu zituen 50. urteurrena ospatzera azalduko diren bazkide eta herritarrak.



IMANOL LARRAÑAGA

Elgoibarko Izarrako
dinamizatzailea

“Bihotzak agindu digu Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena ospatzea”

Urteurren usaina dario Elgoibarko Izarrari, eta bertako kide eta langileek buru-belarri dihardute ospakizun-programaren prestakuntzan. Imanol Larrañaga dinamizatzaileak azaldu du zergatik eta zelan ospatuko duten Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena.

Gero eta gutxiago falta da, Imanol.

Bai, hala da, eta dagoeneko sumatu dugu gure inguruan urduritasunaren itzala. Urteurrenari itxura ematen hasi ginenean urruti ikusten genuen martxoaren 15a, baina hori ere guk uste baino lehenago iritsiko da. Estu samar pasako ditugu hurrengo bi asteak, baina ilusioz eta gogotsu dihardugu.

Zergatik ospatuko duzue elkartearen 50. urteurrena?

Barruak hala eskatzen digulako. Buruak baino, bihotzak agindu digu 50. urteurrena ospatzea. Pozik eta harro gaude Elgoibarko Izarrak 50 urteotan Elgoibar euskaldunagoa izateko egin duen lanarekin, eta poz horrekin bat egiten dugunok elkartzeko aitzakia polita da urteurrena.

Zein dira ospakizun-programari jarri dizkiozuen helburuak?

50 urteko historia honen atzean daudenei haiek egindako lana errekonozitzea izango da lehen helburua. Bigarrena, berriz, Elgoibarko Izarrak 50 urteotan egin duena ahal dugun ondoen jaso eta gizarteratzea da. Eta hori dena ospakizun giroan egingo dugu, jaia, musika edo lagunarteko giroa uztartuz. Gainera, eta azken helburu moduan, nahiko genuke 50. urteurrenko ospakizun-programa etorkizunari heltzeko energia eta ilusio iturri ere izatea.

Zer da prestatu duzuen?

Martxoaren 15ean izango dugu ekitaldi nagusia Herriko Antzokian. 50 urteotan egindako lanaren errekonozimendu-ekitaldia izango da. Asteburu horretan, gainera, karpa bat jarriko dugu Maalan, eta, besteak beste, jan-edanak eta mota askotariko musika izango dugu. Gero, apirilean, bi irteera izango ditugu, sagardotegira eta maskarada ikustera. Ekainean, berriz, Topaguneak urtero antolatzen duen Mintza Eguna Elgoibarren ospatuko da. Urrian, etorkizunari begira jarriko gara, eta Elgoibar euskalduna(goa) izateko konpromiso pertsonalak eta kolektiboak aktibatzeke egitasmoa aurkeztuko dugu. Amaitzeko, aurtengo *Euskara edo ezkara* egitasmoa berezia izatea nahiko genuke, eta baita Eguberrietako bertso-jaialdia ere.

Zeinentzat prestatu duzue hori dena?

Elgoibarko Izarrak egindako lanarekin bat egiten duten guztientzat; 50 urteko lanak merezi izan duela pentsatzen dutenentzat; 50 urtean lortutako arengatik topa egin nahi duenarentzat. Elkartearen pentsamendurekin eta jardunbidearekin bat egiten duten herritar guztiak daude gonbidatuta 50. urteurrenera, Elgoibarko Izarrako bazkide izan edo ez.

Merezi zaban!

asteburua

Martxoak 15, ostirala

20:00-21:15 Ekitaldi nagusia Herriko Antzokian
21:30 Karparen irekiera
21:45 Afari-luntxa (doan)
22:30 Etxekoen goxotasuna: kantuz girotuko
dugu afalostea

Martxoak 16, larunbata

13:30 Erakusketa gidatua karpan
14:30 Bazkari herrikoia (helduen eta umeen menua)*
15:30 Umeen ginkana: Elgoibarko Izarra ezagutuz
18:00-20:00 Erromeria
(tartean Atxutxi-kantua)
21:00-22:30 Ogitartekoak
23:00 Xabier Solano eta DZ (Esne Beltza)

*Bazkaritarako tiketak erosteko:
Elgoibarko Izarraren bulegoan,
BARRENEN edo
www.elgoibarkoizarra.com atarian.
(Martxoaren 8ra arte)



Zumaiakori irabazita, lider jarri da CD Elgoibarreko nesken taldea

Lau partida falta dira liga bukatzeko



Liga amaitzeko lau partidaren faltan, lider dira CD Elgoibarreko emakumezkoen taldekoak, Ostadar taldearekin puntutan berdinduta. Joan zen astean 3-0 irabazi zuten etxean Zumaiako taldearen kontra, eta Ostadarrek berdindu egin zuen Mutrikan. Bi emaitza horiei esker lehenengo jarri ziren elgoibartarrak. 36 puntu dituzte Elgoibarrek eta Ostadarrek, eta Mutriku da hirugarren sailkatua, 34 punturekin.

Bihar bukatuko da Xake txapelketan izena emateko epea

Gaur bukatzen zen berez Xake txapelketan izena emateko epea, baina bihar arte luza-tzea erabaki dute antolatzaileek. Martxotik ekainera bitartean jokatu dituzte partidak Iriondo tabernan, eta edozeinek dauka parte hartzeko aukera. Izena ematen duen jende kopuruaren arabera osatuko dituzte taldeak, eta ligilla eran jokatu dituzte partidak. Izena emateko ondorengo aukerak eman dituzte: fidodidomik@hotmail.com helbidera idatzi edota 630 731 132 telefono zenbakira deitzea. Momentuz 22 lagun daude izena emanda.

Arnoateko Igoera jokatu dute bihar Mendaron

Aingeru Guardako jaien barruan, Arnoateko Igoera antolatu dute biharko. Plaza auzoan hasi eta Arnoate gainera igo beharko dute korrikalariek. 4,5 kilometroko ibilbide aldatza da, errepidez oso-oso. Lasterketa 11:30ean hasiko da Plaza auzoan bertan, A-8 autobide azpian, eta izenemateak egunean bertan egin beharko dira, proba hasi aurretik. Parte-hartzea debalde izango da. Bukaeran, mokadutxo banatuko dute antolatzaileek Arnoaten.

lax, 26 lagunek parte hartu zuten eta Igon Manzisidor debarra izan zen denetan azkarrena. 21 minutu eta 55 segundo behar izan zituen Manzisidorrek ibilbidea osatzeko. Bigarren, Unai Bengoa itziartarra sailkatu zen (22:33). Mendararren artean, berriz, Jon Larrañaga izan zen azkarren (sailkapen nagusian bosgarren egin zuen Larrañagak). Errekorra Oier Arznabarreta durangarrak dauka (20:42).

EMAITZAK

FUTBOLA

Portugalete 2 – Haundi 1
 Idiazabal K.E. 0 – C.D. Elgoibar 1 (Erreg.)
 Elgoibar 3 – Zumaiako 0 (Neskak)
 Elgoibar 3 – Segura 0 (Jubenilak)
 Arrasate C.D. 2 – Elgoibar 3 (Kadete A)
 Elgoibar 0 – Dunboa Eguzki 4 (Kadete B)
 Amaiak Bat 5 – Elgoibar 6 (Ohorezko infantilak)
 Elgoibar 1 – Ilinza S.D. 4 (Infantil Txiki)

ESKUBALOA

Alcorta Forging. 20 – CB Romo 15 (Sen. mut.)
 Atl Basauri 23 – Tecnifuelle 26 (Sen. neskak)
 Ordizia 24 – Gabaz 33 (Sen. mut.)
 Lauko 33 – Zuazo 24 (Jub. neskak)
 Urola KE 30 – Beristain banaketak 18 (Jub. mut.)
 Casa Astigarraga 25 – Zuazo 28 (Kad. nesk.)
 Federopticos Ikus 20 – Pulpo KE 19 (Kad.nesk.)
 Hotel Txarriduna 31 – Aloñamendi KE 32 (Kad. mut.)
 CD Egia 21 – Bankoa 26 (Infan. mut.)
 Bergara 11 – Deca 22 (Infan. mut.)
 Pulpo KE 5 – Murgil Eraikuntzak 31 (Inf. nesk.)
 Aterpe 18 – Aloñamendi E 15 (Inf. neskak)
 Cometel 27 – Aloñamendi B 14 (Inf. neskak.)

XAKEA

Mekatar Elgoibar 0 – Andoain A 4

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 2

12:30 Elgoibar – Lazkao (Ohorezko infantilak)

16:30 Haundi – Gernika

Domekia, 3

12:30 Elgoibar – Ordizia (Kadete A)

16:30 Elgoibar – Ordizia (Erregionala)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Barbakua, 1

20:15 Gabaz – Urnieta (Sen.mt.)

Zapatua, 2

11:15 Cometel – Aterpe (Infantil neskak)

12:30 Bankoa – Eibar B (Infantil mutilak)

16:30 Lauko – Urduliz (Jubenil neskak)

18:00 Tecnifuelle – Jarrilleras (Senior neskak)

Domeka, 3

9:30 Alkideba Neskak – Aloña Mendi (Alebin neskak)

10:45 Murgil – Aloña Mendi (Infantil neskak)

12:00 Astigarraga – Bera-Bera (Kadete neskak)

LANBIDE HEZIKETAKO OLINPIKOAK

IÑAKI HERNANDEZ, SPAINSKILLS-EKO IRABAZLEA

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko bigarren urtea egiten dihardu Iñaki Hernandezek (Azpeitia, 1991) IMHn, eta urrezko domina jantzi berri du Madrilen, Lanbide Heziketako SpainSkills olinpiar jokoetako CNC Torneaketa proban. Madrilgo esperientziaz eta Lanbide Heziketaz aritu zaigu hizketan ikastetxean bertan. Aupa-daka hartu dute ikaskideek elkarrizketatua.

Ainara Argoitia

Zer izan da zuretzat Spainskills irabaztea?

Poz handia hartu dut, baina egia esaten badizut balio handiagoa ematen diot lehiaketa horretarako prestatzen ikasi dudan guztiari lehiaketa bera irabazteari baino. Eskola orduez aparte, astean bi arratsaldetan etortzen nintzen IMHra, eta irakasle batekin aritzen nintzen. Ikasketa pertsonalizatua izan dut, SpainSkills honi esker.

Zer diharduzu ikasten?

2011ko irailean hasi nituen Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko goi zikloko ikasketak, eta bigarren maila hastearekin batera, HEZIBI programan sartu ginen (prestakuntza eta ikaskuntza uztartzen ditu). Programa horren lehenengo urtea zen, eta horregatik azaroran hasi ginen tailerrean. Berez, urtebeteko praktikak egin behar dira, eta beraz, nik titulua ez dut ekainean izango, azaroran baizik, baina gustura ari naiz. Esaten dute enpresa bateko tailerreko ardurak hartzeko prestatzen gaituztela, tailerreko lana antolatzeko-edo, baina praktikan, hau ikasten dugunon %90ek makina aurrean bukatzen dugu lanean.

Zerk edo zeinek animatu zintuen lehiaketa honetan parte hartzera?

Ikasketa hauek hasi aurretik Automozioa ikasi nuen Mekan eta baneukan lehiaketa honen berri, baina berez IMHko tutoreak eman zizkigun argibide gehiago. Hiru lagunek eman genuen izena. CNC torneaketan edo makina fresatzailean aritzeko aukera eskaini ziguten eta nik tornorako eman nuen izena, irakasleak ezagutzen nituelako. Euskadiko Txapelketan hiru lagun lehiatu ginen, Bergarako ikasle bat, Andoaingo bat, IMHko beste lagun bat eta neu.

Zein izan zen zuen egitekoa Madrilen?

Bost lehiakide geunden eta bi pieza egitea agindu ziguten. Pieza horien plano bat eta pieza horren hiru dimentsiotako irudi bat eman zizkiguten eta material horrekin altzairuan atera behar genuen guk pieza, zazpi orduren barruan. Pieza hori ondo egitea da baloratzen dutena, eta berdinketa kasuan, azkarren egin duena saritzen dute. Zozketaz, azkena izatea egokitu zitzaidan, eta hasieran lasaitasuna hartu nuen, besteek zer egiten zuten ikustea izango nuela pentsatuta, baina azkenerako tentsioa ere pilatu nuen.



Irabazteko aukerarik ikusten zenuen zure aurrekoak egiten ari zirena ikusita?

Egia esan, bai. Lehenengo hirurek ez zuten pieza bukatzea lortu eta laugarrenak bukatu zuen, baina nire irakaslearen arabera, akats batzuk bazituen. Nik eskolan bukatzen nuen eta nire lana egitera joan nintzen. Berez, autonomia erkidego bakoitzak pieza bat egitea proposatzen du lehiaketa honetan, baina bat baztertu egin zuten, lau pieza eredu geneuzkan eta joan aurretik ezagutzen genituen. Gero, pieza horiei moldaketa batzuk egitea bazuten txapelketarako, baina oinarrian ezagutzen genituen.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaitik 20 bat lagun joan zineten guztira. Kanpokoekin alderatuz, zer nolako maila zenuten zuek?

Oso ona, eta nire sektorean batez ere. Erreminta makinan, hemezortzi erkidegotik bost lehiakide bakarrik geunden eta hori bera bada adierazgarri. Urrezko domina gehien guk lortu genituen (zortzi guztira). Kataluniarrek lortu zuten domina gehien, baina urrezkoetan guk irabazi genien. Horrek erakusten du gure Lanbide Heziketa kalitatezkoa dela.

“Zortzi urre ekarri ditugu eta horrek erakusten du hemengo sistema kalitatezkoa dela”

Eta Madrilen irabazita, Alemaniara zoaz orain, munduko txapelketara

Ba nik neuk ez dakit, egia esan. Leku guztietan irakurri dut hori, baina ez dago oso argi. Dirurik ez dagoela-eta, Espainiak erabaki du ez parte hartzea Alemanian jokatu den munduko txapelketan, eta ez dakit ba zer gertatuko den. Berez, Euskal Herriak eta Kataluniak lehiatu nahi dute, baina Espainiako estatu barruan gaudenez, ez dakigu zer gertatuko den. Berez, guk dirua lortzeko arazorik ez genukeela izango esan didate niri hemen, baina politika dago tartean eta jakizu zer gertatuko den. Hori bai, niri gustatuko litzaidake esperientzia hori probatzea.

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Unibertsitatera joaterik nahi ez nuelako eta hemen inguruan tailer asko egonda, iruditzen zitzaidalako merkatuan sartzeko aukera ona zela. Ikasi eta lan egiten dugu, eta nik uste dut unibertsitatean dabiltzanen aldean guk abantaila hori badaukagula. Nire anaia Ingeniaritza egiten ari da, eta gauza asko neuk azaltzen dizkiot. Dena den, tailerrean has-tean oso galduta sentitzen zara. Berde iristen gara, eta hori, lehiaketa honi esker ordu extra batzuk sartuta joan naizela.

Mendaroko Zehatz enpresan diharduzu praktikak egiten, Spainskills-eko orain bi urteko irabazlearekin batera. Aholkurik eman dizu?

Jardun genuen hitz egiten, bai, eta kontatu zidan bere esperientzia.

Alemanian, hemen zazpi ordutan egin dudana hiru orduan egin beharko dut, eta gogorra izango da. Alemaniarrak, japoniarrak, korearrak.. ere izango dira han, eta Larraitzek hori esaten zidan: haiek lanean ikustearren bakarrik merezi duela hara joateak.

Nola ikusten duzu etorkizuna? Zer onura ekarriko dizu honek?

Nahikoa beltz ikusten dut etorkizuna. Oraingoz gure tailerrean lan asko daukagu baina ikusi egin behar! Nolanahi ere, ikasteko gogoz jarraitzen dut, eta Txandakako Ingeriaritza egiteko asmoa ere badaukat. Espero dut Madrilgo honek curriculumerako balio izatea, baina nik uste eskolak berak etekin handiagoa aterako diola nik neuk baino.

Zerbait gehiago esan nahiko zenuke?

Eskerrak eman nahi nizkie Igor Larrañaga irakasleari eta Jon Egaña tutoreari. IMHn oso gustura ari naiz, eta iruditzen zait beste eskola batzuetan dabiltzanen ondoan hobeto preparatuta irtetzen garela hemen-dik. Aurreko astean beste eskola batean egon ginen bisitan, eta han bi makina baino ez zituzten. Hemengo tailerra, berriz, ikustekoa da. Han ikasten dihardutenek eta hemen ari garenok azkenean titulazio bera izango dugu, baina guk derrigor izan behar dugu eskarmentu handiagoa. Egia da, era berean, hemen dagoen makineria guzti honi beste etekin bat atera beharko genioke beharbada, baina zortekoak gara.

IOSU ETXEBERRIA, MEKAKO IKASLEA

Laugarren sailkatu da Madrilen, Spainskills-en, Ibilgailuen Pintura proban

Zein izan zen Madrilen zure egitekoa?

Ibilgailuen Pintura izeneko sailean parte hartu nuen, eta kapot bat, hegats bat eta *parachoque* edo kolpe-leungailu bat berritzu eta margotu arazi zizkidaten.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Esperientzia oso polita iruditu zitzaidan, baina momentu batzuetan gogorra ere egin zitzaidan. Hiru egun pasatxoko lehiaketa da, eta azkenean hiru eguneko tentsioak nekatu ere egiten du. Azkeneko luze egin zitzaidan.

Onenak lehiatu zineten han. Zer nolako aurkariak topatu zenituen?

Jende ona, egia esan. Gure sailean hamahiru lagunek jardun genuen, eta aurreneko laurak hiru punturen barruan sailkatu ginen. Oso estu egon zen kontua. Madrilerako sailkatu nintzenean nik argi neukan zein izan behar zen nire helburua: nire lana ahalik eta ondoen egitea. Baina sailkapenari ez nion aparteko garrantziarik ematen. Behin han, hala ere, nahi duzu zerbait gehiago. Ingurukoek lehenengo lauren artean ibiliko nintzela esaten zidaten, eta jakina, nahi zerbait! Bukaeran, proba bukatutakoan, askok esan zidaten berez gorago amaitu behar nuela, baina han ere, egindako lanaz gain, beste gauza batzuk ere hartzen dituzte kontuan itxuraz, nongoa zaren eta halakoak. Nolanahi ere, ni oso gustura bueltatu naiz egindakoaz, eta horrekin gelditzen naiz.

Nola baloratzen duzu hemengo Hezkuntza sistema?

Ni neu gustura nago eskaini didatenaz. Jakin badakit eskolan oinarrizko ezagutza hartzen dela eta gero benetan ikasi tailerrean egiten dela,



baina Mekan egindako ibibidea oso aberasgarria egin zait. Ikasketak amaitu ditut, eta orain momentuan langabezian nago. Autonomiozko sektoreak ez du garairik onena bizi, baina pentsatzen dut Lanbide Heziketa oso aukera ona dela merkatuan sartzeko.

Laugarren sailkatu zara Madrilen. Zertan da lagungarri halako probetan parte hartzea? Onurarik igarri duzu?

Ez, baina espero dut balio izatea zerbaiterako.

21 lagun joan zineten Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia ordezkatzeko. Zer moduzko harremana izan zenuten zuen artean?

Ona. Ordu asko eman ditugu elkarrekin, eta talde ona sortu dugu. Urrezko zortzi domina eta brontzezko beste zortzi bat domina ekarri genituen etxera, eta nik uste dut horrek erakusten duela hemengo Hezkuntza Sistema kalitatezkoa dela.

XABIER ISASTI

Artisau artista

Xabier Isastik akuarelak, egurrezko artelanak eta pirograbatuak egiten ditu besteak beste, eta artisau artistatzat dauka bere burua. Betidanik izan du marrazketarako eskua, eta 89an hasi zen akuarela lantzen. 2008an lanik gabe geratu zen, eta artisau munduan ikastaro batzuk egiteko baliatu zuen denbora libre. Ikastaro haie-tatik ogibidea egin du, eta gaur estreinatuko du bere lehenengo erakusketa Eibarren. Hilaren 15era arte egongo da ikusgai, Untza-gako jubilatuen etxean.



“Edozein hondakin bihurtu daiteke artelan”

Gaur inauguratuko duzu zure estreinako erakusketa. Zer sentitzen duzu?

Pozik nago. Eibarren daukadan lehengusina batek animatu nau nire lanak erakustera, eta ilusioz hartu dut. Akuarelak, egurrezko tailuak eta pirograbatuak jarriko ditut ikusgai. Ni ferietan ibiltzen naiz nire lana nolakoa den erakusten, Trinitateetan esaterako. Feria horietan ez da asko saltzen, baina enkar-gu asko jasotzen ditut, eta ezagutzera emateko oso gune ego-kiak dira.

Noiz eta nola hasi zinen artelanak egiten?

Betidanik izan dut marrazketarako zaletasuna, eta eskola ga-raian nahiko ondo moldatzen nintzen marrazteko ikasgaietan. Erraztasuna neukan, eta gustatzen zitzaidan. 1989. urtean Egur arte eskolan hasi nintzen oleoan margotzen ikasten, bai-na horrek ez ninduen hainbeste betetzen, beste zerbait egin nahi nuen. Irakasle batek gomendatuta hasi nintzen akuarela lantzen. Ez zeukan ordura arte egiten nuenarekin zerikusirik, eta izugarri gustatu zitzaidan. Hiper-errealismoa egiteko auke-ra ematen du akuarelak eta hori da bereziki gustatzen zaidana. Lanaren ondorioz Egur arte eskola utzi behar izan nuen, eta nire kabuz jarraitu nuen ikasten. Deskonektatzeko oso ondo etortzen zitzaidan margotzea.

Eta akuarelaz gain, egur tailak eta pirograbatuak egiten dituzu.

Bolumena landu nahi nuen, eta egurrezko tailuak egiten hasi nintzen. 2008an lanik gabe geratu nintzen, eta ez nuen nahi egun osoa ezer egin gabe egoterik. Erremintak erabiltzen ika-

si nuen, eta poliki-poliki lan txikiak egiten hasi nintzen. Pirogra-batuan ere egiten ditut hainbat lan. Egurrean marrazkia egin eta erre egin behar da horretarako bereziki erabiltzen diren erreminta batzuekin. Aspaldiko teknika da, eta jende gutxi ga-biltza horretan. Nire afizioa ogibide bihurtu dut, eta langabezia-ri aurre egiteko modurik onena izan da. 2008tik hona asko al-datu da nire bizitza.

Non egiten dituzu zure lanak?

Ez daukat lanerako lokalik eta etxean egokitu nuen nire lantxo-ak egiteko gune bat. Tamaina txikiko lanak egiten ditut, eta gehiena enkarguz egiten dut. Erakusketa egiteko bata eta besteari eskatu behar izan dizkiot lanak, nik neuk lan gutxi gor-detzen ditudalako nire etxean. Hondakinak bai, denak gorde-tzen ditut, badaezpada, eta etxea trastez beteta daukat! Ima-ginazio apur batekin, edozein hondakin bihurtu daiteke arte-lan.

Imaginazioa aipatu duzu. Zein da egin duzun lanik orijinalena?

Kutxak antolatutako Ekobira erakusketarako lanpara bat egin nuen Athletic-ek atera zituen garagardo botilekin. Birziklatuta-ko gauzekin egin behar ziren lanak eta hori bururatu zitzaidan. Bizkai aldean arrakasta handia izan zuen! Horrez gain, trofeo-ak egiten ditut. 10Bai pilota taldearentzat egin nituen iaz lan batzuk: frontoi itxurako erlojuak egin nituen. Txapa lantzeko ikastaro bat egiten ari nintzen, eta ikastaro amaierako proiektua izan zen. Aurten ere CD Elgoibarko alebin taldeari egingo dizkiot pare bat trofeo.

Herri kirolak eta bertso bazkaria izango dira domekan Mendaron, Aingeru Guardako jaien egitarauaren barruan

Domekako bertso bazkaritarako sarrerak bihar arte egongo dira salgai

Zapatuan hasi zituzten Mendaron Aingeru Guardakoaren omenezko jaiak, baina berez, gaur hasi eta igandera bitarterako antolatu dituzte ekitaldi gehienak. Gaur, Aingeru Guardakoaren egunean, bi meza izango dira izen bereko Plaza auzoko ermitan: 8:00etan eta 11:00etan. Bihar, berriz, Arnoateko lgoera jokatuko dute hirugarren urtez jarraian, eta ondoren, iluntze aldean, trikiti poteoan irtengo dira. 19:00etan batuko dira Plaza auzoan bertan, eta trikitalariek lagunduta, tabernaz taberna ibiliko dira.

Bertso bazkaria

Nolanahi ere, egun handia domekan izango da. 12:00etan meza nagusia ospatuko dute Aingeru Guardako ermitan, eta trikitalariek eta bertsolariek girotuko dute



meza ostea. Andoni Egaña zarauztarra eta Sebastian Lizaso azpeitiarra arituko dira bertsotan. Hain justu ere, bertsolari horietan jardungo dute gero kantuan Aizpe gastronomia elkartearen egingo dute bertso bazkarian (14:30ean). Sarrerak salgai dau-

de dagoeneko Txirristaka eta Ormola tabernetan eta antolatzaileek jakinarazi dute, zapatura arte egongo dela txartelak erosteko aukera (25 euroan). Nolanahi ere, denak salduko ez balira, domekan bertan ere egongo litzateke eskuratzeko aukera, Plazan.

‘Gorda’ antzezlanaren eskainiko du Txalo Produzioak taldeak gaur zortzi, Elgoibarren



Txalo Produzioak taldeak *Gorda* izenburuko antzezlanaren taularatuko du gaur zortzi Elgoibarko Herriko Antzokian (20:30). Komedia garrantza da *Gorda*, dramatikoak ere bai une askotan: Gorkak, protagonistak, arrakasta handia dauka bizitzan, eta arrakasta duenez, auto mota jakin bat omen dagokio, etxe ederra, lagun ospetsuak eta, jakina, emaztegi “fina eta dotorea” ere bai. Elenaz maiteminduko da, baina, 30 kilo sobera dituen emakumeaz, eta ingurukoek barre egingo diote. Neil Labute antzerkigile amerikarrak idatzitako obra da *Gorda*, eta Lur Korta, Aitor Fernandez, Joseba Usabiaga eta Ainhoa Garai dira antzezlaneko aktoreak.

Sarrerak Servikutxako kutxazainen bitartez, www.kutxa.es atarian edota 943 001200 telefonoaren bitartez eskuratu behar dira.

‘Txarlestrop’ antzerkia Elgoibarren, hilaren 17an

Zirika Zirkus taldeak *Txarlestrop* azken lana taularatuko du Elgoibarko Herriko Antzokian, martxoaren 17an. Zirika Zirkusekoek diziplina ezberdinak uztartzen dituzte: dantza, akrobaziak, clown antzerki teknika eta musika, eta antzezlan honetan bereziki musikak indar handia dauka. *Txarlestrop* entzungo da obran zehar, baina klakea ere dantzatuko dute. 16:30ean hasiko da antzerkia eta sarrerak salgai daude dagoeneko, haurrentzakoak 3,5 euroan eta helduentzakoak 5 euroan.



LANA.....

Eskaera

• Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. Esperientziaduna.

☎ **660 113 373**

• Emakumea lan bila. Etxeko lanak egin, sukalde laguntzaile, edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest.

☎ **638 884 104**

• Esperientziadun mutila zerbitzari lanetarako prest. Ordu-tegi malgua.

☎ **692 332 871**

• Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Ordu-tegi malgua. ☎ **686 052 084**

• Bi neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan egingo genuke lan. Esperientzia eta gomendioak ditugu.

☎ **625 895 460 (Carmen) / 638 835 824 (Oneida)**

• Emakumea lan bila.

☎ **628 647 809 (Margarita Morales)**

• Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Etxean nahiz tabernan, gauez edo egunez. ☎ **689 436 454**

• Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Goizez, jardunaldi erdiz, edo gauez, 22:00etatik aurrera.

☎ **632 143 239 / 628 738 472**

• Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo adinekoek konpainia egiteko. Ordu-tegi malgua. Asteburuetan ere bai. ☎ **618 814 064**

• Emakumea eskaintzen da umeak nahiz nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **605 720 298**

• LHko edo DBHko klase partikularrak ematea gustatuko litzaidake. ☎ **637 010 168**

• Gizonezko gaztea lan bila. Igeltsero, garbitzaile edo zaintzaile lanak egiteko prest.

☎ **662 576 146**

Eskaintza

• Emakume euskalduna behar da adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna moduan. Kontratua eta aseguruarekin.

☎ **943 740 459 (Tere. 19:00etatik aurrera)**

ETXEBIZITZAK.....

• Etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ **686 052 084**

• Etxea alokatzen dut Errosario kalean.

☎ **639 353 331**

• Etxea salgai Amaña auzoan (Eibar). Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa eta balkoi itxia. Altzariek eta margotu berria. 90.000 euro (15 milioi pezeta). Ahal den azkarren saltzeko premia.

☎ **652 716 564 / 943 742 962**

KINTOAK.....

• 1977koek bazkaria egingo dute martxoaren 16an. Maalako parkean batuko dira 13:00etan. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu korrante honetan: 2101 0036 64 0013146055

BESTELAKOAK.....

• Martxoan hiru hilabete beteko dituen katutxoak oparituko nioke ondo zaintzeko prest dagoenari.

☎ **943 740 687**

• Sukalderako egurrezko mahai berria salgai. 120x80cm neurrikoa. Luzatu egiten da.

☎ **943 748 64**

• Ezkontza eraztuna galdu dut, Karkizaotik Maalara bitartean. Estimua handikoa.

☎ **943 741 164**

• Joan zen domekan, hilak 17, Altus Alpine markako hiru bastoi ahaztu zitzaizkigun Aitolako aparkalekuan (Madariagan). Norbaitek aurkitu baditu, deitu mesedez.

☎ **658 729 032**

• Eraztuna galdu dut San Roke 32 inguruan. Estimua handitan nuen. Aurkitu duenak deitu dezala, mesedez.

☎ **688 686 494**

• Etxeko jatekoarekin hazitako txerria salgai.

☎ **680 442 695**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarri gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarri gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



• Zorionak, **Ane**, atzo 7 urte egin zenituelako. Muxuak etzekoen, lagunen eta bereziki, osaba Unairen partez.



• Zorionak, **Nora**, otsailaren 20an 8 urte egin zenituelako. Muxu asko familiakoen eta bereziki, Leire eta Malenen partez.



• Zorionak, **Pablo!** Egun polita pasatzen Gurasoen, aittittaren eta lagunen partez.



• Zorionak gure **alaitasunari!** Julia, Marimar eta Eduren partez.



• Zorionak, **Jone**, zure 8. urtebetetzean. Etxekoen partez.



• Zorionak etzeko **printzesari**, bere 6. urtebetetzean. Muxu bat etzekoen eta bereziki, Manexen partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure 9. urtebetetzean. Etxekoen eta bereziki, Enekoren partez.




• Zorionak, **Hartz**, bi urte egin dituzulako. Muxu handi bat Iraultza, Oihan, Sugar eta Harrieten partez.



• Zorionak, **Naia**, zure 6. urtebetetzean. Patxo bat familiakoen eta bereziki, Julenen partez.



• Zorionak, **Andde!** 1, 2 eta... 3! Oraingoan, bai! Txokomarrubizko muxu goxo-goxo bat zuretzat, maittia.



• Zorionak **Victor**, hilaren 27an 4 urte egin zenituelako. Anaren partez.



• Zorionak, **Peru**, zure 3. urtebetetzean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Maialen**, bihar urtetxo bat egingo duzulako. Patxo bat familiakoen, eta bereziki, Jonen partez.



• Zorionak, **Iratil**, Familiakoen partez eta bereziki, Julen eta Ainararen partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

1 barixakua

Erakusketa

18:30 'Elgoibarko emakume artistak'

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Elgoibarko hainbat emakumeren lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 9ra arte.

2 zapatua

Irteera

10:00 Logroñoiko kartzelara bisita
Arnaldo Otegi libre uzteko eskatuko dute kartzela atarian eta hara joateko autobusa antolatu du Arnaldo askatu, politika askatu herri plataformak.

Gastronomia

21:30 Barrikotea

Kimetz elkarte sagardotegi bihurtuko dute, eta nahi duenak sagardotegi menua dastatzeko aukera izango du.

3 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua

Zuzendaria: Gorka Mujika.

1. Gallop (A. Reed)
2. Shalom (P. Sparke)
3. Titanic (J. Horner)
4. Cats (A. Lloyd Webber)
5. Agarrate saxo (J. Montañes)
6. Ireland of legend lore (R.W. Smith)

8 barixakua

Antzerkia

20:30 'Gorda'

Txalo produkzioak antzerki taldeak aurkeztuko du Herriko Antzokian.

ZINEA

'La noche más oscura'

- 1, barixakua: 22:15
2, zapatua: 19:00/22:15
3, domeka: 19:00
4, astelehena: 21:30



'Amigos para siempre'

3, domeka: 16:30



'Una pistola en cada mano'

(Ongarri zinekluba)

7, eguena: 21:30



OKINDEGIA

3 domeka:
IBARRENEA

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

1 Garitaonandia
2 Etxeberria

3 Etxeberria
4 Fernandez
5 Yudego
6 Zabaleta
7 Barrenetxea
8 Ibañez

Gauetz

22:00 - 9:00

Garitaonandia
Etxeberria

Etxeberria
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia
Barrenetxea
Etxeberria



MARTXOAK 8 EMAKUMEAREN EGUNA

dela eta haurrentzat
ekintzak plazan,
16:30tatik 18:00tara.

**MARTXOAK 8
EMAKUMEAREN
EGUNAREN
inguruko erakusketa.
Martxoaren 6tik 10era.**





OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07
Ikus
OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12
UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJEAK

22\12
VICTORIA IRAEGI

- Esku terapiak
- Kiropraxia
 - Dranatzaille linfatikoa
 - Osteopatia
 - Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astelehenetik
Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko
kalea, 40 (atzealdea)
Elgoibar
Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12
LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12
UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIAI**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
 - Audiometriak
 - Audifonoak
 - Tonometria

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12
AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12
FISIO&MÁS

FISIOTERAPIA
AURRERATUA ETA
KIROL BERREGOKITZEA

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa:
 - +Traumatologia.
 - + Estetika (zelulitisa, estriak)

OSASUNERAKO
ARIKETA AGINDUA
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

ENTRENAMENDU
GIDATUA.

Aupa Zen Medikuntza
Estetika Zentrua

Jausoro plaza, 1-Elgoibar

(Sta. Klaran, Udaletxeko zubitik gertu)

Tel.: 667 95 36 28

2013 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu



Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu **943 744 112 edo **943 743 704** zenbakira edo idatzi **barren.publi@elgoibarkoizarra.com** helbidera.**